

han-hemen

Berak sortutako produktu kosmetikoak erabiliko dituen makillaje eskola ireki du Valeria Mazzak

Valeria Mazza modelo argentinarrak makillaje eskola ireki du Buenos Airesen, duela bi urte sortu zuen produktu kosmetikoen lerroa erabiltzen duten emakumeei zuzenduta. Valeria Mazzak berak jakitera eman duenez, «*VM Beauty School* makillaje eskolak norbera bere irudiarekin gustura egotea du helburu nagusia», eta helburu hori lortzeko bere ibilbide profesionalean ikasitako trikimailu eta aholku guztiak erakutsiko omen ditu. 30 urteko Mazza gazteak kosmetiko lerro propioa kaleratu zuen duela bi urte, eta horren ostean *Valeria* eta *CyberSt@r* izeneko lurriak. Kosmetika produktuek harrera bikaina izan dute Argentinan, eta Mazzaren hurrengo proiektua horiek nazioarteko merkatura zabaltzea da.

Berlinen egingo ditu ikasketa praktikak Suediako Victoria printzesak

Suediako Victoria printzesa irailean Berlinera joango da ikasketa praktikak egitera. Berlingo enbaxada suediarrek jakitera eman duenez, bi hilabetez egongo da Victoria praktika horiek egiten, eta dagoeneko lortu du etxebizitza egokia. Printzesaren amak, Silvia erreginak, urriaren 12an drogazaleen errehabilitazioaren aldeko festa antolatu du Berlingo Museo Historikoan, eta alabarekin elkartzea espero omen du.



RALF HIRSCHBERGER / EPA

Ekaitzaren irudi miresgarriena Dresden

Alemaniak jasan dituen uholde eta ekaitz gogorrek irudi miresgarriak ere eskaini dituzte noizean behin. Elba ibaia handitu baina lasaiaren magalean, eta zerua argitzen duten tximisten artean, Dresde hiriaren panoramika ederra ikus daiteke.



INDRANIL MUKHERJEE / EPA

Mihia erre gabe sua jateko teknika erakutsi die mediku batek bere ikasleei

Nagendra Nayak doktoreak arriskurik gabe sua jateko teknika erakutsi die bere mintegira hurbildutako ikasleei. Bangaloren (India) egiten ari den mintegiko ikaslea, alkanfor zatia jateko prest dago.



CHRIS PIZZELLO / AP

Williams eta Nielsen azken lana aurkeztu da Los Angelesen

Elkarrekin egin duten *One Hour Photo* filmaren aurkezpenean irribarretsu azaldu dira Robin Williams eta Connie Nielsen aktoreak. Aurkezpene Los Angelesko (Kalifornia) Beverly Hills auzoan izan da.

Emaztearentzako hilobia zulatu du, ezin duelako ehorzketa ordaindu

Emaztearentzako hilobia zulatzen dihardu, ehorzketa egiteko ezintasuna dela eta, Frantziako hegoaldeko herri txiki bateko bizilagun batek. Gaur egun langabezian dago Pierre Colier militar ohia, eta Douville-sur-Andelleko alkatearen aholkuak jarraitu dituela adierazi du. 59 urteko gizon honek hilean 400 euro jasotzen ditu, eta horietatik 260 bizi den karabanaren alokairua ordaintzeko behar ditu. Aurreko larunbatean hil zen gizon honen emaztea, eta orduaz geroztik dabil hilobia zulatzen.

Lear erregearen jarraitzaile sutsua dela dio Alvaro Cunhal komunista portugaldarrak

Portugalgo mugimendu komunistako buru izandako Alvaro Cunhalek jakinarazi duenez, Shakespeare idazlearen lanen itzulpenak egitea oso gustukoa du, eta *Lear erregea* obraren miresle sutsua bihurtu omen da. Datorren irailaren 7rako Cunhanek itzultitako lan hau prest egotea espero du Caminho argitaletxeak, liburuaren aurkezpeneak Portugalgo Alderdi Komunistaren urteroko festarekin bat egin dezan. Alvaro Cunhal urteetan egon da Penicheko kartzelan preso, eta bertan igarotako urteak liburu itzultzeko erabili ditu. *Lear erregea* liburu Maria Manuela Serpa ezizenez publikatuko da, politikari ohiaren aginduz.

hilberriak

ESKELAK

Gaueko 9ak arte hartzen dira



(0034) 943 300 222

publi@egunkaria.com



Juan Vicens Etxano

Mendaron hil zen herenegun, osteguna, abuztuaren 22a, 48 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena jaso ondoren.

Haren emaztea: Josune Badiola; seme-alabak: Jon, Aitziber eta Ibon; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusuak eta gainerako ahaideak

“ONDARRUKO INSTITUTOKO GURASO ELKARTEA”

Otoitz bat eskatzen dizuete haren arimaren alde, eta arren etor zaitetzela gaur, LARUNBATA, hilak 24, arratsaldeko ZAZPIETAN, ONDARROAKO Andra Mari parrokian gorpua bertan dela egingo diren hileta elizkizunetara. Aldez aurretik, mila esker.

Oharra: Kapera gaur, larunbata, arratsaldeko lauretan AURREAREN futbol zelaian jarriko da.